Eta urteak pasa ziren hurrengoa irekitzeko. Kontua da lurra oso garestia zela bi lurralde hauetan: «Bizkaian, AP8 alboan, Bilbo eta Kantabriako muga artean, espazioak oso garestiak ziren, ez zegoen industrialderik eta zeuden toki partikularrak oso oso garestiak ziren». Gipuzkoan gauza bera, Irungo muga inguruan lurra oso garestia zen. «Saiatu ginen Andoain eta Irun artean begiratzen; kuriositate gisa aipa daiteke, Bidekok galdegin eta ezetza jaso zuen zenbait

## ERREPORTAJEA

lekutan, gaur egun gasolindegia zabaldu direla, adibidez Andoainen Petromirallesen, edota Sorabillan, orain low coast-a jarri duten tokian. Azkenean Foru Aldundiaren bidez lortu genuen Oiartzungo Lanbarren poligonoan espazioa, logistika gune hori eraikitzen hasi baino lehen. Bertako Udalak asko lagundu zigun».

### 20 urte Lanbarrenek

Duela 20 urte ireki zen Lanbarrengo hornitzailea, 2006ko otsailean. Printzipioz logistika gune honetako goiko partean ireki nahi zuten, baina poligonoaren sarreran hartu behar izan zen lurra, partzela garestiena erosi zuen Bidekok, besteen hirukoitza ordainduz, hirugarren sektorearentzat erabilera zeukalako. Gero zabaldu ziren Bidekoren hornitzaileak 2012an Galarren eta 2020an Larrabetzun.

Bideko Aterpeko arduradunen ustez, «hasiera hasieratik arrakasta lortu zuen garraiolarien artean, beste inon ez zegoen deskonturik; betiko gasolindegietan hartzen zuten gasolioa garraiolariak, bezero oso onak ziren eta Gabonetan ardo botilaren bat jasoko zuten opari, edota zigarro puro kaxaren bat, bestela, ez zen deskonturik. Pezetaren bat asko jota. Bidekok hasieratik 10 pezeta merkeago ematen zien gasolioa bazkideei».

### Miloi bat litro hilero

»Hasiera zoragarria izan zen, gasolindegia bakarria izanda ere, hilero miloi bat litro saltzen genuen garai hartan. Lau kale zituen bakarrik Langraitz-ko hornitzaileak eta kamioi ilara handiak sortzen ziren. Aipagarria da Bidekoko gasolioaren kalitatea ere, beti hornitzaile ofizialei erosten genien, eta beti ekartzen zuten sindikatuko bazkide batek, Bidekorentzat lan egiten duten garraiolari denak bertakoak dira,



Imagen de archivo de las instalaciones de Langraitz.

«El éxito fue inmediato. No había descuentos, ni competencia, ni gasolineras «low cost». Abrir Langraitz y ya vendía un millón de litros al mes»

Hiruko kideak. Balioa eman behar zaio horri. Neurria ere beti izan da zehatza, tranpa asko izaten ziren, orduan, beste toki batzuetan».

### Aitzindariak

Teknologia aldetik ere aitzindaria izan da Bideko: Estatuko lehenak ehunetik ehunetik txartelarekin ordaintzen, hasieran motel xamarra bazen ere; modem batekin funtzionatzen zuten. Telefono linearekin arazo dexente izaten ziren. «Eskatutakoa baino gehiago edo gutxiago bota zuten ondo begiratu behar genuen, falta zena kobratzeko edo sobratutako itzultzeko. Taloa bidaltzen zitzairen lehenbailehen, zintzoak izan behar genuen eta». Esan bezala, lehenengoak izan ziren hornitzaile automatikoa martxan jartzen Visa txartelarekin, «gero sistema hobetzen joan gara; orain

gure Bideko Txartela dutenek beste 3 xentimoko deskontua dute».

Momentu kritikoena Sintrabikoak utzi zutenean izan zen. Bazkide kopurua murriztu zen, eta kontsumoa ere bai, noski. Dena den, gauza on bat izan zuen, kooperatiba handitzeko eta Euskal Herri osora zabaltzeko bidea erraztu zen. «Aukera ona izan zen. Aurretik beti Bizkaira begira geunden, Gipuzkoan zerbait topatu orduko Bizkaian beste lur zati bat topatu behar zen oso garestia izanda ere. Horrela zaila zen aurrera pasuak ematea, ia ezinezkoa».

### Ibilbideko mugarrak

Mugarri batzuk egon dira Bidekoren ibilbidean. 1997an zabaldu zen Langraitzeko hornitzailea. 2006ko ekainean zabaldu zen Lanbarrengo,

«Bideko fue la primera en utilizar la tarjeta bancaria para el pago de los suministros. Ahora la Visa de Bideko tiene un descuento adicional»



Imagen reciente de Larrabetzu con la nueva rotulación.

«Hoy se abren muchas gasolineras de «bajo coste». Sin embargo, Bideko sigue siendo competitiva, ya que da gasóleo de calidad»

Gipuzkoan, 2012an Galarrekoa Nafarroan, eta zabalkundea 2020ko abian jarrita. «Oraingoz osatu da sarea, ondo kokatuta daude, garraiolariak edonora aterata ere badu aukera gasolioa Bidekon hartzeko; Estatu mailan eta Nazioartean dabiltenentzat sare egokia osatu dugu: Mesetara, Madrileria edota Portugalera doazenentzat Langraitzeko dago, Galizia, Asturias edo Kantabriara aldera doazenentzat Larrabetzuko; Mediterraneo aldera doazenentzat

Galarrekoa eta Irundik kanpora doazenentzat Lanbarren. Beste bat jartzekotan erdialdean izan beharko litzateke barruko garraioa egiten dutenentzat, Bergara, Durango aldean...».

### Gasolindegia ugari

Prezioa ere asko zaintzen du Bidekok. «Petrolioaren igoera dagoenean, denek igotzen dituzte tarifak. Bideko izan da gasolioa ordaindu duen prezioan saldu duen bakarra, garraiolariak jasan duten kolpea zertxobait arintzeko».

Gasolindegien sektorea bera ere atomizatuta dago, egun, gasolindegia pila bat daude, edonon, prezio merkea dutenak ere bai, beraz lehia aldetik egoera zaildu da: «ez da garai bateko egoera eroso; hasi ginenean ez zegoen kompetentziarik; orain industrialde guztietan para bat gasolindegia haundi daude. Dena den, hau gurea da, Euskal Herriko garraiolariena. Prezioarekin baino, gasolioaren kalitatearekin, neurri zehatzarekin -horretan beti zorrotzak izan gara- eta garbiketarekin erakartzen ditugu. Kalitatea ziurtatua dago, filtroak erabiltzen ditugu, 5 mikrakoa deskarga egiten denean bonbat batekin, eta hori gutxi balitz, gero tanketik hornitzailean banatu baino lehenago, 25 mikrako filtrotik pasatzen dugu itsatsitako ura ere kentzeko».

### Kalitatea

Hiru hilabetero begiraten dira Bidekon gasolio biltzeak ere, zikin edo bakteriorik dagoen ikusteko. «Mantenu kontratu bat badaukagu, baina bakterioak agertuz gero, beste tratamendu bat martxan jarri behar da. Hiru hilero begiratu behar zer dagoen bestela ez zara konturatzen. Gaur egun bakterio asko agertzen dira Estatu Batuetako arauen arabera begiratuta, hemen baino zorrotzagoak dira».

800 bazkide inguru dira egun kooperatiban. «Eite hori hartu zuen garraiolari guztiona izateagatik.

Mekanika eta Elektrizitatea  
Zerbitzu ofiziala

**PAMENDI**

943 624193 info@tallerespamendi.com  
Arañaburu kalea 4 C, Lanbarren poligonoa 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)

**DAF**  
**ISUZU**  
**SCHMITZ CARGOBULL**

**DAF salmenta 699 838 069**

## ALBISTEA

Bazkideak aukera dauka urtean behin batzarrera joateko, nahi duena esateko eta proposatzeko. Zuzendaritza batzordean garraiolariak daude, gehienak beteranoak. 30 urte bete ditu Bideko Aterpek eta sektorean gorabeherak izan diren arren osasuntsu iraun du, sendo, finkatua dago, kontsolidatua. Seriotasuna erakutsi du urteotan».

Hasiera ez zen erraza izan, «ministerioak emandako diru laguntzarekin, eta bazkideak jarri zutenarekin gasolindegia eraikina ordaindu zen, baina ez zegoen dirurik bertan banatzeko gasolioa erosteko. Beraz, eraikina hipotekatu behar izan zuten, gasolioa erosi eta saltzen hasi ahal izateko. Abalik gabe saltzaile handiek ez zuten gasoliorik banatzen».

### Traba guztien gainetik

Eta bilakaera ere ez da erraz erraza izan, trabak beti jasan ditu kooperatibak. «Txikiak baztertzeko trikimailuak ziren. Ez zuten txikirik nahi. Gu merkeago saltzen hasi ondoren, petrolerak edota operadoreak ere deskontuak egiten hasi ziren gerora. Egunero pasatzen ziren Bidekotik prezioak begiratzera».

Aitzindariak izan ziren Bidekon, esan bezala. «Sekulako eragina izan zuen merkaturan Bidekoren irekierak, Euskal Herrian bereziki. Betiko gasolindegia ere hasi ziren garraiolariari eskaintzak egiten. Zenbateko beherapena zuten galdetzen zuten eta prest zeuden prezio horretan gasolioa emateko. Orain gasolindegia pila bat daude,

«Bideko ha crecido sin que los socios hayan tenido que aportar nada. Lo poco que ganaba se ha vuelto a invertir en las cuatro áreas»

asko merkeak, baina lehiakorra izaten jarraitzen du Bidekok».

### Etekinak berriro inbertitu

Bidekoren meritua da, handitzea eta zabaltzea, garraiolari bazkideei dirurik eskatu gabe. Atera den diru apurra berriro inbertitu da kooperatiban. Ondo kudeatu da. 60 euro, 10.000 pezeta jarri hasieran eta kooperatibako bazkideek lau hornitzaile dituzte, bulegoak, 30 urtetan kalitatezko gasolioa jaso dute, deskontu onekin, milioika litro saldu dira, ez da arazo edo eragozpenik izan produktuarekin.

Ikusita azken urteotan ze iruzur egon diren sektorean, goraiatzeko da Bidekoren jokabidea «zerga guztiak ordaindu ditugu, eta langile guztiei ere bai, Administrazioari, bulegokoei, saltzaileari, gasolioa ekarri duen garraiolariari... gainera, Arabako Aldundiak hamar urtean behin inspektzioa egin dio Bidekori. Arazorik gabe gaingitu badu ere, denbora asko galtzen da horretan».

Bideko Aterpek baditu bere eragozpenak eguneroko lanean. Egunero erosi behar du biltegi handirik ez duelako, «igoera dagoenean berehala igotzen dugu eta jaisten denean ere berehala. Martxoan, Israel eta Estatu Batuek Iran eraso zutenean, hilabete osoan hartutako prezioan saldu genuen gasolioa, margenik aplikatu gabe. Hala ere, noizean behin entzuten ditugu sekulakoak, batzuk azalpenak

eskatzen lehenengoak dira, gero sindikatuaren dinamiketan parte hartzen ez duten arren».

Iñaki Pujana izan zen urtetan Bidekoko lehendakaria. Bere ustez, hasierako ametsak bete dira, nahi bezain azkar izan ez bada ere. Garrantzia ematen dio gasolioaren kalitateari, 30 urtean eskaini duen prezioari eta lau hornitzaileen kokapenari. Garraiolariak kooperatiban batera lan eginez, aurrera egingo du arrisku handiko lanbidea bada ere. «bakarka ez gara ezer. Elkartzen bagara bai».

### Gabarra aurreratutakoarekin

Migel Anjel Lekuek, Txirrik, gabarra erosi zuen gasoliotan aurreratutakoarekin eta iritzi oso ona dauka Hiruren baitan sortu diren erakundeez. «Hiru Bideko eta Babesa denak dira bat, asmakizun eta lanabes onak. Hori ez dago ukatzerik. Hemen ez da inor aberastuko, irabazitakoak berriro inbertitzen ditu kooperatibak».

Beste elkarte batzuen desberdina da Bideko, beste zentzu bat dauka, ez horren korporatibista. Hiruk erabaki zuen kooperatiba izatea, elkartasunean oinarritua. Bidekon gasolioan aurreratutakoarekin bost urtean gabarra bat erosi zuen Txirrik, 30.000 euroan. «Beste gastu guztiei aurre egin eta hori aurreratzea ez da txantxa. Ez negozio txarra. Kamioi burua erosteko ere aurreratu beharra zegoen eta beste gastu guztiei aurre egin. Errepidean bakarrik bazterrean geratu den garraiolariari laguntzeko Babesa edo Bideko izatea zer den orain konturatzen gara. Ez zegoenean ez zegoen ezer egiterik, ezta inor laguntzera joaterik espero».

## ELKARRIZKETA

Rafa Delgado

# «Bideko Aterpe es una herramienta muy útil para el transportista»

**Bizitza osoa eman du Rafa Delgadok kamioian; Sortu zirenetik ezagutzen ditu Hiru sindikatua eta bere erremintak, Bideko Aterpe eta Babesa. Guztiak miresten ditu. Hamar urtetan nazioartean aritu zen, Alemania, Danimarka, Italia eta Europako beste toki batzuetara bueltaka. Gaur egun etxetik lan egiten du. Batzuetan egurra garraiatzen du Pasaiko portutik Hernaniko Zinkuñaga auzoko paper fabrikara; edota burdina, material siderurgikoa, Olaberriko ArcelorMittaletik.**



Rafa Delgado está pensando ya en la jubilación después de toda una intensa vida en el transporte. «Todos los días llevo tarde a casa, pero, en definitiva, estamos a lo que estamos. Me agarro a todo, no puedo estar mirando a las musarañas; por un día no pasa nada, pero no puedo pasarme días parado». Está pensando en jubilarse, ya tiene edad y ha pedido la ayuda para el cese. De momento las circunstancias personales le impiden abandonar la tarea, se divorció, con dos hijos e hipoteca recientemente finiquitada, alquiló una casa... «Mientras tenga

salud y el «cacharro» aguante, voy a seguir pero no por mucho tiempo». Dispone de un camión que va para 19 años, y se jubilará con él.

### 30 años de Bideko Aterpe, 20 años desde que se abrió el surtidor de Lanbarren... ¿qué opinión tienes de la cooperativa?

Es una herramienta muy útil, sin duda. Estoy en ella desde que se creó. Te da facilidades a la hora del suministro de gasoil; y también participé en una compra conjunta de camiones en 1998. Se hicieron unas cuantas, yo entré en la segunda,

porque me venía bien el «cambio» de camión; estuvo genial, se supone que será mejor una adquisición colectiva que comprar sólo, algunos dicen que yendo por tu cuenta también te hacen un descuento, igual, pero no se sabe...

### ¿Se portan bien en Bideko?

La verdad es que tiene altibajos, alguna vez ha estado más caro que en la calle, pero en general se portan muy bien. Ahora hay mucha competencia, hay algunos surtidores que tienen el mismo descuento e incluso el gasoil más barato, sobre todo el fin de semana. Prácticamente tienen el mismo precio, pero hay que tener en cuenta todo. Por ejemplo, el tema de la medida también genera dudas. Una vez hice una prueba, hace muchos años: tenía un palo con una raya que marcaba 300 litros. En

«Gasolio eskuratzeko erreminta ona da Bideko Aterpe. Nik kamioia ere erosi nuen, 1998. urtean, kooperatiba honen bidez»

## ELKARRIZKETA

Bideko la marca del gasoil llegaba hasta la raya, en otro un poquito menos, y en el otro menos aún.

### Confías en que en Bideko la medida es exacta...

Si por supuesto...

### ¿Y qué me dices de la calidad del producto?

Me imagino que es el mejor. El gasoil llega más o menos todo desde el mismo sitio, pero cada uno tiene sus filtros. No es lo mismo, una estación antigua con los depósitos roñados y sin hacer el mantenimiento adecuado, nunca, a las prestaciones que ofrecen las estaciones de Bideko Aterpe-

### Hace 20 años se abrió el surtidor del polígono de Lanbarren; a ti personalmente te vendría bien...

Por supuesto. De cine. Están todos bien ubicados, en rutas principales. Las veces que hemos ido al puerto de Bilbao, a la vuelta por el Txorierrri entrabamos en Larrabetzu. O lo mismo yendo para Zaragoza, en Galar, en Nafarroa o para Madrid en Langraitz. Tenemos Lanbarren a 5 minutos del puerto de Pasaia, voy y vengo. A veces, cuando estoy apurado de tiempo cojo gasoil en Petromiralles en Andoain, tiene un descuento similar; normalmente en Bideko. No siempre se mira al precio, también a la comodidad o a las facilidades para repostar. Aquello se pone feo a veces y te desanimas. Entro, veo la cola y me doy la vuelta. Están los seis surtidores llenos y otros seis camiones esperando. Al final desesperas. Suelo entrar a ver si hay sitio y...

«Hiruk eskaintzen dizkigun erreminta eta zerbitzuak edonorentzat dira onak. Nik hasieratik erabiltzen ditud, 1990-1991tik»



«Gasolioaren kalitateak ere garrantzia du. Gaur egun, toki beretik heltzen dira denak, baina, gero, bakoitzak bere filtroak ditu eta gureak onak dira»

### ¿Qué importancia le das al sindicato y a este tipo de herramientas? ¿Qué ventajas tienen?

Me monté en este carro desde el principio, vamos navegando, circulando, y pienso llegar con ellos al final de mis días laborales.

La gente habla mucho de que los sindicatos no hacen nada... Yo estoy en Hiru desde que era Sintragi, en 1990 o 1991, desde la famosa huelga del transporte en octubre del 90, estaba entonces a punto de comprar el primer camión que lo recibí en

noviembre. Siempre he estado en el sindicato. Luego vino la cooperativa Bideko Aterpe, recuerdo que pusimos 10.000 pesetas de entrada. Entonces iba mucho a Madrid y repostaba en Langraitz. Siempre tenías la tarjeta de Repsol, por si acaso, para cuando se te acababa.

Siempre me ha ido bien con ellas. A nivel personal han sido todo ventajas. Viene bien a todo el mundo. Del puerto van casi todos a repostar a Lanbarren.

El seguro hace muchos años que lo hago con el sindicato. No estoy en Babesa, entre una circunstancia y otra se me pasó, no entré, pero muchas veces he pensado que lo tenía que haber hecho. Aunque no lo haya utilizado, creo que también es una herramienta interesante.

## Rafa Delgado

### No has tenido perjuicio o percance alguno...

No, no. Lo contrario... perjuicio ninguno en Hiru. Todo son ayudas. Información, renovación de permisos... Tenemos también la tarjeta de Bideko Aterpe con la Caja Rural que te da un descuento de 3 céntimos más, la posibilidad que da para fraccionar los pagos para los momentos en que tengas apuros económicos, etc... todo suma. Así, vamos tirando del carro.

### ¿Has disfrutado en el sector?

Sí, desde noviembre del 90, estuve 10 años saliendo fuera: con 32 años empecé a ir a Alemania, Dinamarca, Gran Bretaña, Italia, algún viaje a Portugal... con el grupo Giró. Fue una experiencia bonita e interesante... pude conocer un poco aquello.

«Nazioarteko garraioa, gaur egun, ez da erakargarria. Berdina irabazteko ez zoaz haraino. Pasaian antzekoa jasotzen dugu»

Luego, me cansé, dejé de salir y me quedé aquí. Nacieron los críos, y dije `esto se me va a escapar de las manos`. Y, además, el transporte internacional dejaba de ser interesante.

Yo tenía amigos trabajando en el puerto de Pasaia; estaban facturando prácticamente lo mismo, y para ganar lo mismo no vas hasta allí. Aunque factures algo menos, por la diferencia de gasto, te compensa, incluso tienes más beneficio...

### Ya no tiene tanto atractivo el transporte internacional...

Antes ibas de viaje y en el camino te encontrabas con algún «colega». Siempre tenías compañía, alguno que hacía la misma ruta.

Ahora cambia todo. Volví a hacer algún viaje en 2012 y 2013 pero ya no te encontrabas con casi nadie. De vez en cuando veías a alguno. Aunque el camión tuviera matrícula española, eran rumanos o búlgaros. ¡Como ha cambiado! A peor, por supuesto.

RESA

IVECO  
Drive the road of change

Descubre tu **nueva gama**  
Nuevos motores, nuevo diseño, nuevos servicios

RESA GUIPUZCOANA

Ctra. Nacional 1, Km 444, 20150 Villabona (Gipuzkoa) Telf: 943 690 400 www.resaguipuzcoana.com

# Ekimen ikusgarria 2025ean lan istripuan hildako 84 lagunak gogoratzeko

Una espectacular, reveladora y significativa performance denunció el 28 de abril, Día Internacional de la Seguridad y Salud en el Trabajo, que la precariedad laboral se llevó el pasado año la vida de 84 trabajadores en Euskal Herria. Los sindicatos LAB, ESK, STEILAS, EHNE-Etxalde e Hiru plantaron 84 cuerpos metidos en sacos blancos frente a la sede del Gobierno Vasco en Alderdi Eder para criticar al mismo tiempo las mentiras que están difundiendo sobre el absentismo. En su opinión, el absentismo al que tanto alude la patronal no es más que precariedad que sufren los trabajadores; «la falta de prevención también es precariedad». Una manifestación recorrió previamente las calles próximas al Boulevard de Donostia, bajo el lema «Absentismoa: gezurra ari du. ¡Defendamos nuestros derechos laborales!».

Apirilaren 28an, Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Egunean, LAB, ESK, STEILAS, EHNE-Etxalde eta Hiru sindikatuek, batetik, absentismoaren inguruan zabaldu den gezur sorta errefusatu eta, aldi berean, bestetik, ekimen ikusgarria egin zuten Donostian, Alderdi Ederren, iaz lan istripuan 84 langile hil zirela salatuzko, horietatik 22 garraiolariak. Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren parean irudikatu zuten sindikatuek lan heriotzen arloko iazko sarraskia: lurlean etzanda jarri zituzten 84 gorpu hil zaketan sartuta. Irudi ikusgarri bezain esanguratsua izan zen.

Bestalde, aurretik manifestazioa egin zuten, Bulebarretik eguerdian abiatuta, «Absentismoa: gezurra ari du. Gure lan-eskubideak defenda ditzagun!» lelopean. Patronalak horrenbeste aipatzen duen absentismoa langileen prekaritatea

baino ez dela salatu zuten sindikatuek; prebentzio falta ere prekaritatea dela, alegia.

**Negozioa heriotzen aurretik** Sindikatuek apirilaren 28an salatu zuten, langileen bizitza eta osasuna babestearen aurretik jartzen dutela negozioa, esplotazio modu ezberdinetan oinarritzen dela «etekinen bilaketa aseegin hori», eta, batez ere, emakumeek eta pertsona arrazializatuek jasaten dituztela jokabide makur horiek.

Gainera, iaz lanean hildako 84 lagun eta beste hainbeste istripu larri irudikatzearekin batera, laneko

gaixotasunen ugaritzea salatu zuten sindikatuek, sakonagoa eta ikusezinagoa den errealitatea. «Lan batzuek hil egiten dute, eta beste askok —gehienek— ez dute bizitzen uzten» Gaineratu zuten lan hauek argiki baldintzatzen dituztela generoak, klaseak eta arrazak. «Horrela, emakumeak dira, bereziki migratu eta arrazializatuak, modu neurrigabearen sektore prekarizatuenetan, ikusezinenetan eta babesgabeenetan ari direnak».

»Patronalak eragiten duen epidemia hilgarri eta isil baten aurrean gaude», nabarmendu zuten sindikatuek, sistematikoki urratzen

**«El negocio se contrapone a la vida y la salud de los trabajadores. Pero apenas se habla de los que mueren o enferman»**



Los sindicatos simbolizaron la alta siniestralidad laboral plantando 84 cuerpos en sacos blancos frente a la sede de Jaurlaritza.

dela Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea, berau onartu eta 30 urtera. Eta Administrazioak urte guzti hauetan beste aldera begiratu duela ere bai. Sindikatuek borrokan jarraituko dutela baieztatu zuten, «guztionezko lan baldintza duinen alde, ikusezinak diren lanen aitortza eta babesaren alde, genero eta arraza esplotazioa amaitzearen alde eta pertsona guztientzako osasun eta bizitza eskubidea bermatuko duen osasun sistema publiko, unibertsal eta kalitatezkoaren alde».

**Gipuzkoako Batzar Nagusietan** Bestalde, bezperan, apirilaren 27an LAB, EHNE etxalde eta Hiru sindikatuetako ordezkariak Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ekonomia Batzordera eraman zuten gaia. 2025ean lan istripuetan gertatu ziren heriotza kopuru handia salatu zuten, esan bezala, 84 langile hil ziren lan istripuan iaz Euskal Herrian, horietatik 22 garraiolariak.

LABeko Inko Iriartek hiru lerroburu nabarmendu zituen batzarkideen aurrean, 30 urte daramatzagula lan osasun eta segurtasun prebentzio planekin;



## ALBISTEA

hala ere, 2025ean 84 langile hil zirela Euskal Herrian lan istripuetan eta 10 urtetan 696. Absentismoaren inguruko hausnarketa ere plazaratu zuen, «prebentzio gutxien egiten den arloetan da baja kopuru handiena», istripu ez traumatikoen igoera salatu zuen, gero eta langile gehiago hiltzen dira bihotzekoen ondorioz, eta baita lan gaixotasunak ez direla aitortzen ere, «baja arrunt asko daude, ez direlako lan baldintzen ondorioz direnak aitortzen.»

Hiru sindikatuaren izenean Jon Altunak lan istripuan hildako garraiolariari dagokionez aspaldiko urterik latzena izan dela adierazi zuen. «2025ean 22 garraiolari hil ziren Euskal Herriko errepideetan. Den denak ez ziren Euskal Herrian hil, kanpora ere joaten baitira hemengo garraiolariak, eta den denak ez dira errepidean hil, askok kamioiaren kabinan zain zeundela galdu baitute bizia bihotzekoaren ondorioz.»

### Urterik txarrena

Beraz, Euskal Herrian lan-istripuan iaz hil diren 84 langiletatik laurdena pasa, 22, izan dira garraiolariak. «Datu esanguratsua da. Aipamen berezia eskatzen du garraioaren sektorean gertatzen diren istripu larrien kopuruak. Gero eta estuagoa da garraiolariaren lanbidea, gero eta istripu gehiago gertatzen dira eta 2025ekoa azken urteotako estatistikarik txarrena izan da.»

Hiruko ordezkariak gogoratu zuen lau garraiolari hil zirela istripu batean: Fiteron 2025eko martxoaren 5ean, gauez. «Goizaldera bi kamioik aurrez aurre talka egin eta lau garraiolari hil ziren, bi emakumezko eta bi gizonezko, Iruñea eta Madril lotzen dituen N113 errepidean, 101 kilometroan, Fitero parean. Lauak garraiolariak, txandaka gidatzen zuten. «Jakina da istripu hauek sektoreko baldintza txarren



## «Llevamos 30 años con planes de prevención, seguridad y salud laboral; sin embargo, en 2025, murieron 84 trabajadores en accidente laboral»

ondorio direla. Kasu honetan esanguratsua da istripua gertatu den ordua eta bina gidari zihoazela ibilgailu bakoitzean: goizeko laueta lanean ari ziren garraiolariak, gehienok atsedean hartzen gauden orduan. Kamioi bakoitzean bikote bat zihoan, biak garraiolariak. Kasu honetan, bi txekiarrek eta beste biak bulgariarrak. Jokabide oso arriskutsua da bi gidari joatea kamioi bakoitzean, bat gidatzen ari den bitartean bestea «atseden» hartzen; garraiolariak, geratu gabe gidatzen, gau eta egun; kamioia 18 ordutan martxan, ez da behar bezala atsedetik hartzerik. Euskal Herrian sekula gertatu den lan istripurik larrienetarikoa da.»

## «La edad de los transportistas fallecidos importa. La mayoría tiene más de 50 años y a partir de cierta edad se pierden reflejos y crece el riesgo»

### Bihotzeko ugari

Aipagarria da era berean, beste sektoreetan bezala asko direla heriotza ez traumatikoak, hau da, garraiolari asko hiltzen dira kamioiaren kabinan bihotzeko arazoren baten ondorioz. «Bederatzi izan dira 2025ean. Horregatik, aspalditik ari da Hiru Sindikatua, lan arriskuen plangintzak egiten direnean, garraioan gertatzen den bihotzeko arazo kopuru handia kontutan izateko eskatzen.»

Hildako garraiolarien adina ere azpimarratu zuen Jon Altunak. «Errepidean hiltzen diren garraiolarien artean gehienak 50 urtetik gorakoak dira; asko dira



60tik gorakoak, jada erretiratuak egon beharko luketenak. Jakina da, 60 urtetik aurrera arrisku handiagoa duela garraiolariak, arreta galdu, bihotzekoa izan edota, oro har, istripua izateko. Horregatik, aspalditik eskatzen ari da Hiru Sindikatua garraiolariari 60 urterekin erretiratzeko aukera eskaintzeko. 40 tona daraman garraiolariaren beraren bizitza eta osasuna arriskuan delako. Eta errepidean dabiltzan beste gidariena ere bai.»

Berez kopuru orokorra latza da. 22 garraiolari hil dira lan istripuan 2025ean Euskal Herrian, 2024an baino 8 gehiago-, heriotza asko NOPLOI eta OSALANek lan istripu gisa hartzen ez baditu ere. Esaterako Fiteron hildako lau garraiolariak ez dira Euskal Herriko estatistika ofizialetan ageri. Trafiko istripu soila da Administrazioarentzat, ez lan istripua. «Lan segurtasun arauak betetzeko eskatzen ari gara; Administrazioak ez dezala beste aldera begiratu, arauak betearazi ditzala; eta, azkenik, gertaerak ondo jaso daitezela. Garraiolari batek ere ez dezan errepidean bizia utzi.»



Maite Aristegi, Inko Iriarte eta Jon Altuna Gipuzkoako Batzar Nagusietan.

# BABESA

ERREPIDEAN BIDELAGUN  
COMPARTIMOS CARRETERA

¿CONOCES ALGÚN SEGURO QUE TE  
DEVUELVA DINERO?

Ciertamente los seguros no devuelven dinero,  
pero BABESA EPSV sí lo hace.

La EPSV, además de ser una herramienta  
que permite al transportista tener su vehículo asegurado a  
todo riesgo, es también una herramienta de ahorro.

Al final de su relación con Babesa,  
el transportista podrá recuperar hasta el 60%  
de las cantidades abonadas en concepto de prima.

## HIRU ASEGURUAK, precios 2026

Seguros obligatorios		
CABEZAS TRACTORAS (NACIONAL- INTERNACIONAL)	HIRU 2025 1.658,90 €	GRÚA O VOL. 1.715,30 €
CAMION RIGIDO NACIONAL		
TRAMO 1, (3,5-9 tns)	1.330,50 €	1.487,20 €
TRAMO 2 (>9-19 tns)	1.516,85 €	1.647,25 €
TRAMO 3 (>19-34 tns)	1.798,15 €	1.932,60 €
TRAMO 4 (>mas 34 tns)	1.896,95 €	2.011,90 €
CAMION RIGIDO INTERNACIONAL		
TRAMO 1, (3,5-9 tns)	1.330,50 €	1.487,20 €
TRAMO 2 (>9-19 tns)	1.516,85 €	1.647,25 €
TRAMO 3 (>19-34 tns)	1.962,95 €	2.076,50 €
TRAMO 4 (>mas 34 tns)	2.110,15 €	2.286,95 €
SEMIRREMOLQUES (NACIONAL-INTERNACIONAL)	530,50 €	565,45 €
REMOLQUES (NAC.- INTER.) DESDE 3,5TNS/10TNS	342,85 €	348,14 €
>10TNS	415,75 €	431,46 €
FURGONETAS	1.115,00 €	

\* Responsabilidad Civil Obligatoria.  
\* Responsabilidad Civil Voluntaria 50.000.000€.  
\* Defensa jurídica nacional o internacional dependiendo del ámbito de la póliza.  
\* Roturas de lunas 100%  
\* Asistencia en viaje hasta 6.000€ (3.000€ rescate y 3.000€ remolcaje), excepto furgonetas que disponen de una asistencia ilimitada. (Independientemente del ámbito nacional o internacional)  
\* Accidentes corporales del conductor 24 horas (profesión): Muerte/Invalidez Permanente absoluta, parcial o total 50.000€ y asistencia Sanitaria. Confirmamos que el coste de añadir un conductor más sería 65,65 €/año. (Una póliza aparte que acompaña a la de circulación).  
\* Accidentes Cinegéticos (excepto semirremolque y remolques).  
\* Menores 25 años: incluida.  
\* Entrada en puertos: incluida.  
\* RC en parado para vehículos basculantes y/o grúa: incluida con una franquicia de 150€ (Una póliza aparte que acompaña a la de circulación).

Seguros de MERCANCIAS	Franquicia	Cap asegurado	Prima 2026
Coberturas ICCA	150 €	5.000	210,48 €
Robo	150 €	10.000	243,42 €
Mojaduras	150 €	15.000	310,58 €
Roturas	150 €	20.000	373,44 €
Mala estiba general (max. 50.000)	300 €	25.000	434,53 €
Huelgas	150 €	30.000	487,42 €
Riesgos Extraordinarios	150 €	35.000	543,19 €
Carga/Descarga	150 €	40.000	593,43 €
Gastos remoción 6.000€		45.000	672,18 €
Suma asegurada <6.000 capital 5.000	Sin franquicia	50.000	678,99 €
Suma asegurada >6.000 capital 5.000	Sin franquicia	55.000	746,87 €
<b>Mala estiba general</b>		60.000	788,15 €
Contratada con un max. de 50.000 euros		65.000	828,36 €
10% con un mínimo de 1.200 euros	300 €	70.000	863,03 €
		75.000	936,98 €
<b>Daños/contaminación de polizones</b>		80.000	977,72 €
Suma asegurada <10.000 capital 5.000	10 %	85.000	1.032,05 €
Suma asegurada >10.000 capital 10.000	(Mínimo 1.200)	90.000	1.072,41 €
		95.000	1.140,68 €
<b>CMR Transportista LCTTM/CMR</b>		100.000	1.181,41 €
Robo	150 €	105.000	1.256,09 €
	300 €	110.000	1.269,69 €
		115.000	1.310,43 €
		120.000	1.324,00 €
		125.000	1.371,54 €
		130.000	1.378,31 €
		135.000	1.439,42 €
		140.000	1.473,36 €
		145.000	1.493,75 €
		150.000	1.500,53 €
		200.000	1.744,97 €
		300.000	2.159,14 €

\* Ámbito: U. Europea, Andorra, Ciudad del Vaticano, Croacia, Liechtenstein, Noruega, Mónaco, Suiza, San Marino y Reino Unido.  
\* Cálculo de la prima: Por matrícula.  
\* Mercancías: Perecederas, frágiles, tecnológicas, ADR (excluidas explosivas, auto inflamables y radioactivas) y generales salvo excluidas.

### Seguros de responsabilidad civil

	2026 con patronal Fact. de 130.000	2026 con patronal Fact. de 260.000	Peligrosas con patronal Fact. de 130.000	Peligrosas con patronal Fact. de 260.000
Límite asegurado 300.000 €	151,35 €	231,02 €	352,09 €	580,86 €
Límite asegurado 600.000 €	266,20 €	355,54 €	464,70 €	743,52 €

► **DENBORA-PASAK**

# 7 diferencias desberdintasunak



**Bi irudi hauek berdin berdinak dirudite baina zazpi desberdintasun dituzte. Topa itzazu!**

El objetivo del juego es encontrar las siete diferencias entre estas imágenes casi iguales. ¡Animo!

## Sudoku zail xamarrak

9				2				
					8			
	2	3	7	1	6		5	
		6						
5	1				7		9	
				9	5		4	
8	3		9					1
			5	3				
	7						3	

		1		2				3
3	6	7			5			
				5	9	7		
5	7		8	6		1		
		2						
		6	1					8
		4		3		9		
			9		5	6	2	

## 139. aleko erantzunak



9	6	1	3	2	8	5	4	7
7	2	5	1	4	9	6	8	3
4	8	3	7	5	6	2	9	1
2	7	4	5	6	3	9	1	8
3	9	6	8	1	7	4	5	2
5	1	8	2	9	4	7	3	6
6	3	7	4	8	5	1	2	9
1	4	9	6	3	2	8	7	5
8	5	2	9	7	1	3	6	4

1	8	2	4	9	7	5	3	6
9	4	6	3	2	5	7	8	1
3	5	7	1	6	8	9	2	4
5	1	4	8	7	6	3	9	2
7	3	9	2	1	4	6	5	8
2	6	8	9	5	3	4	1	7
4	9	5	6	8	2	1	7	3
8	7	3	5	4	1	2	6	9
6	2	1	7	3	9	8	4	5

**Norbere datuak / Datos personales**

Afiliazio zenbakia: Número de afiliado	Izen abizenak: Nombre y apellidos	
NAN: DNI	Jaiotze data: Fecha de nacimiento	
Helbidea: Dirección	Herria: Población	PK: CP
Telefonoa: Teléfono	Posta elektronikoa: Correo electrónico	

**Jarduera datuak / Datos de la actividad**

Enpresa baimen zenbakia: Número de afiliado	Kopia ziurtatuaren mota eta zenbakia: Nº copia certificada	
Mota: Serie	Lan mota: Tipo de trabajo	
Ibilgailua: Vehículo	Matrikula: Matrícula	Zama: Carga útil
Erdi-atoia: Semirremolque	Matrikula: Matrícula	
Banketxea: Entidad bancaria	Kontu korrante zenbakia: Nº cuenta corriente	
Afiliatze data: Fecha de afiliación	Uzte data: Fecha de baja	
Uztearen arrazoia: Motivo de baja		

**Sindikatu zerbitzuak / Servicios del sindicato**

**BIDEKO**  
ERREPIDEAN BIDELAGUN  
COMPARTIMOS CARRETERA

**BABESA**  
ERREPIDEAN BIDELAGUN  
COMPARTIMOS CARRETERA

**HIRU**  
ASEGURUAK  
SEGUROS

**HIRU**  
AHOLKULARITZA  
ASESORIA

**Sinadura / Firma:**

Oria etorbidea 10, 406. bulegoa  
20160 Lasarte-Oria  
T: 943 364 092  
F: 943 363 262  
[gipuzkoa@hiru.org](mailto:gipuzkoa@hiru.org)

Los Llanos industrialdea,  
A kalea, 13  
01230 Langraitz  
T: 945 361 627  
F: 945 361 643  
[araba@hiru.org](mailto:araba@hiru.org)

Meseta de Salinas  
industrialdea, A kalea, 4  
31191 Galar  
T: 948 281 024  
F: 948 281 025  
[nafarroa@hiru.org](mailto:nafarroa@hiru.org)

Sasine Poligonoa  
Utza Kalea 7 Larrabetzu  
Salida 25 del corredor  
del Txorierrri  
944046664  
[larrabetzu@hiru.org](mailto:larrabetzu@hiru.org)

Lanbarren industrialdea,  
Mugarriegi kalea 2  
20180 Oiartzun  
T: 943 260 349  
F: 943 260 805  
[lanbarren@hiru.org](mailto:lanbarren@hiru.org)

Langraiz Oka (Los Llanos industrialdea, A kalea, 13. pab.) helbidea duen HIRU SINDIKAL KONFEDERAZIOAK formulario honen bidez sartutako datu guztien segurtasuna eta konfidentziasuna bermatzen du, Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera. Garraio aholkularitza zerbitzua eskaintzeko erabiliko dira datuok. Hala nola, nahi izanez gero, Legean agertzen den sarbide, zuzenketa eta deuseztapen eskubideak erabil ditzakezu, mezu bat igorri aipatutako helbidera edo honako fax zenbaki honetara: 945 361 643.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de carácter personal HIRU GARRAIOLARIEN SINDIKAL KONFEDERAZIOA, con domicilio en Langraiz Oka (Los Llanos industrialdea A kalea 13) le informa de que los datos de carácter personal que Ud. nos facilite serán incluidos en un fichero responsabilidad de esta entidad con la única finalidad de prestarle servicios de asesoría de transporte. Ud. en cualquier momento podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, oposición y cancelación mediante solicitud escrita dirigida a la dirección indicada o nº de fax 945 361 643.



# CON LAS TARJETAS STAR DE CEPSA **VAS A LO SEGURO**



Para todo conductor, la seguridad es fundamental. Pero para un profesional del transporte, lo es mucho más, porque afecta también a tu trabajo. Por eso las **Tarjetas Star de Cepsa** están pensadas para ti:

- Descuento en carburante
- Factura electrónica
- Gestión online
- Extracto de transacciones
- Amplia red de estaciones de servicio

Además con las Tarjetas Star y Eurotrafic de Cepsa:

- Número PIN en las transacciones
- Asistencia técnica en carretera
- Pago de peajes

Solicítalas en el **943 364 092**, en cualquiera de las oficinas de Hiru o en [www.tarjetascepsastar.com](http://www.tarjetascepsastar.com)

**CEPSA**

Tu mundo, más eficiente.

**Euskal Herrian  
bizi eta lan egiten  
duten garraiolari  
autonomoei  
gasolio onena  
prezio eta  
kalitate ezin  
hobean  
eskaintzen die  
Bideko  
Aterpek.**

**Lau zerbitzugune dauzka  
Bideko Aterpek Hego Euskal Herrian:  
Arabán, Langraitzen;  
Nafarroan, Galarren;  
Gipuzkoan, Oiartzunen  
eta Bizkaian, Larrabetzun.**

**Edonora joanda ere  
kalitatezko gasolioa  
topatuko duzu bidean.  
Hori aukera,  
hori mauka!**

**BIDEKO**

***GASOLIO ONENA  
PREZIO EZIN HOBEAN***

***EL MEJOR GASOIL  
AL MEJOR PRECIO***